

# IRA eta Sinn Fein Dublingo parlamentura

Armei bai eta partizipazioari ere bai; erabaki historiko bat.



Txillardegia, HB-ko senadorearentzat, zeinak bilera horretan parte hartu duen, hartutako erabakia historikoa izango da.

## Politika berri bat

dago, beraiek ere alde agertu bait dira.

G. — Baina zatiketa sortu da Sinn Fein-en, ez al da gauza bera gertatuko IRAn?

E. Gerry Adams-ek Sinn Fein utzi nahi zutenei geratzea es-

katu zien, baina Ruairi O'Brigaigh eta beste ehunen bat bilera utzi eta beste hotel batera joan ziren beraien bilera bukatzea eta alderdi berri bat muntatzea. Azken hauek orain arte bezala jarraitzea eskatzen dute.

Borroka armatuaren aldekoak dira, nahiz eta bere hitzetan, oraingoz beso armaturik ez izan. Badirudi IRA barruan ere denak ez zirela eritzi berekoak, baina, galdu dutenak, partizipazioaren kontra zeudenak, gehiengoan

erabakia onartuko dutela jakin arazi dute.

G. — Zeintzu izan dira jarrera bakoitzaren alde agertu diren eritziak?

E. — Partizipazioaren kontra azaldu dira txosten gehienak, 90 bat. Bertan erabiltzen zen argudioa hemen erabiltzen den berbera da, sistemak irenstsia suertatzeko arriskua, bi borroka mantentzeko garrantzia eza, orain dela 64 urte erabaki hori hartu zenean marko politikoak Irlanda zatitzen zuela eta ez zen 1922an parlamentura joatea onartu, eta markoa ez da aldatu. Nola aldatu parte hartuz... eta abar. Guretzat oso ezagunak gehienak. Partizipazioaren aldekoak berriz, 64 urtez parlamentuan parte hartu gabe egon ondoren, Hego-Irlandan Sinn Feinek ehuneko 2 boto besterik jasoko ez balu, eguneroko politikatik kanpo geratu dela esango lukete. Beraz, parte hartu beharra dago, hori bai, borroka armatua zalantzan jarri gabe eta derrigorrezkotzat joaz. Bestalde, Sinn Fein alderdi erabakikorra bihurtu daitekeela diote, bi partidu nagusien arteko alde txikia baita. Batzuen ustez bost izan daitezke hautatuak, besteen ustez berriz bi edo hiru, ez da jende asko egia esan, bertan 60 parlamentari postu hautagai daudelako.

G. — Guzti honek Gallarta eta ElAren sortzearen kutsu haundia du ez?

E. — Beno desberdintasunak haundiak dira, eta nere ustez Gerry Adamsi konfiantza eman behar zaio. Orain, horrek ez dio arriskua kentzen, ez eta garrantzi historikorik ere. Irtenbidea ez da batera erraza, partizipazioarenak hemen ere ikusi dira, baina bestalde 64 urtez frentean gogor ibili ondoren, ehuneko 2a besterik ez lortzea hegoaldean, hori ere oso larria da arrisksutsua da. Hala eta guztiz, nire ustez denborak erakutsiko du IRAk eta Sinn Feinek hartu berri duten erabakiaren emaitza.

Zoriturrez gauza asko geratu da aipatu gabe, egitarau politikoak, ipar aldeko egoera, baina guzti hori beste batean aztertuko dugu. Bestalde hiru egunetako gai nagusia hauxe izan zen, eta horrenbeste egitarau beraren edukia.



Gerry Adams, eskubitan, parte hartzearen aldeko burua; ezkerretan Ruairi Bradaigh, eszibio burua.



Irak, Sinn Fein-ek parte hartu behar duela pentsatzen du, eta beraiek borroka armatuari eutsi.